# IKASTETXEAREN PRINTZIPIOAK

Gure ikastetxeak berezko bi ezaugarri nagusi ditu bere “idearioa” oinarritzen dutenak: Publikoa eta Euskalduna da. Honek esan nahi du Hezkuntza sailak markatzen dituen lehentasunak kontuan hartzen dituela eta, “D” eredukoa izanik, euskararen erabilpenari eta indartzeari garrantzi berezia eman behar diola herri honetan daukagun diglosia egoera gainditzeko.

Hala ere, zutabe hauetan oinarriturik, berton ematen den heziketa prozesua gidatzen duten beste printzipio batzuk zehaztu nahi ditugu.

## a) **PLURALA – INKLUSIBOA**

- Ikasle guztien beharrizanak ezagutzea eta behar duten erantzuna bilatzea hezkuntza komunitate osoa inplikatuz. Honetarako tutoretzak eta orientazioak balio berezia daukate eta garrantzia emango zaie.
- Taldeak osatzerakoan aniztasuna onartzea eta errespetatzea. Taldeak txikiagoak izan daitezela edota indartze neurriak egon daitezela ahalegina egingo da. Klasean talde lana egitea.
- Ikasle bakoitzari behar duen ibilbide akademikoa eskaintzea: Erritmo desberdinak, gaitasun desberdinak, jarrera desberdinak … errespetatuz. Honetarako behar diren bitartekoak (gelak, bikoizketak, CD, indartzeak … ) eta metodologia anitzak erabiliko dira.
- Ikasleak bere osotasunean ebaluatzea. Euren konpetentziak garapen handienera eramaten saiatuko gara.
- Guztion aukeren berdintasuna ziurtatzea, genero eta kultura desberdinak onartuz baina suposa ditzaten mugak gaindituz. Hezkidetza zehar lerro bezala lantzea.

## b) **EUSKALDUNA – ELEANITZA**

- Ikastetxe euskalduna izatea. Euskara ikasketa hizkuntza izateaz gain komunikazio-hizkuntza nagusia izan beharko litzateke.
- Irakasleek, eredu diren heinean, euskara bultzatzeko konpromiso berezia daukate.
- Euskararen presentzia arreta berezia behar badu ere, ikasle eleanitzak izateko bitartekoak jarriko dira, beste hizkuntzei (Gaztelera, Ingelera, Frantsesa) behar duten tokia emanez.
- Ikastetxeko hizkuntza proiektuak hizkuntza hauen koordinazioa bilakatuko du.
- Euskara ez dakiten gurasoei euren hizkuntzan komunikatzeko aukera ziurtatu behar zaie. Ikastetxeko komunikazioak elebidunak izango dira.

## c) PARTE HARTZAILEA. BIZIKIDETZA ZAINTZEN DUENA

- Balore demokratikoetan eta Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatuko da.
- Ikasle, irakasle eta gurasoen arteko harremanak errespetuan eta konfiantzan oinarrituko dira.
- Gatazkak aurreikusteko bitartekoak jarriko dira, prebentzioa oinarria izanik. Gatazkak ematen direnean era baketsuan konpontzeko tresnak bideratuko dira.
- Eskola komunitateko kide guztien parte hartzea bultzatuko da. Guztiek tokia izan behar dute euren iritziak emateko eta erabakiak iritzi hauek errespetatuz hartu behar dira. Honetarako AJA-ROF dokumentuan bideak eta tresnak zehaztuko dira (ikasleen ordezkariak, eskola kontseilua, guraso elkartea, klaustroa ... )
- Heziketa parte hartzailea bilakatzeko, metodologia parte-hartzaileak bultzatuko dira.

## d) PERTSONAREN GARAPEN INTEGRALA BIDERATZEN DUEN HEZKUNTZA. KALITATEZKOA

- Emozioak, ahalmenak eta gaitasun guztiak garatzen dituen hezkuntza. Honek suposatzen du horrelakoak garatzen dituen curriculuma bideratzea. Heziketa emozionala landuko da eta, horretarako irakasleak trebatu behar dira.

- Berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen den prestakuntza irakasleentzat.

- Sormena, ekintzailetza eta boluntariotza bultzatuko da ikasleen artean kalitatezko hezkuntza lortu ahal izateko.

- Baliabide egokiak izaten saiatuko gara beti, instalazioak eta materialak behar diren moduan mantentzeko ahaleginak eginez.

- Teknologia berrien erabilpena bultzatuko da baldintza egokietan eta betiko baliabideetatik baliabide digitaletara pasatzeko ahalegin progresiboak egingo dira.

## e) HERRITAR KRITIKO ETA ARDURATSUAK SORTZEN DUENA.

- Ikaslea ikasketaren protagonista da. Horregatik ikasleen lana eta hausnarketa bultzatuko da. Ikasleen parte hartze aktiboa eskatzen duten metodologiak bultzatuko dira.
- Berdinen arteko lankidetza bultzatuko da, talde barnean ikasle bakoitzak ardura zehatzak dituela.
- Ikasleak erantzule eta arduratsuak izan daitezen saiatuko gara eta horretarako ikasleen ordezkariak hautatuko dira eta hauen bitartez ikasle guztiek erabakietan parte hartzeko aukera izango dute. Ahalik eta ikasle gehien arduraren bat izan dezala bultzatuko da.
- Ikasleak ikasten duenak berarentzat baliagarria izan behar du ikasketa esanguratsuak egin ditzan, lantzen diren gaiak errealitatearekin eta gizartearekin lotuta egon behar dira.
- Ingurua zaintzea guztion erantzukizuna da, horregatik, ikastetxean ohitura osasungarriak, berrerabiltzaileak, energia eta ura aurreztekoak … landuko dira.
- Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza. Honen aurka doazen jarrerak eta ekintzak kritikoki aztertu behar dira.

# PRINCIPIOS DEL CENTRO

Nuestro centro tiene dos características inherentes que condicionan claramente su “ideario”: Público y euskaldun. Esto quiere decir que se siguen aquellas prioridades que marca el Departamento de Educación y que, siendo un centro de modelo D, se debe dar especial relevancia al uso y refuerzo del Euskara para poder normalizar la situación de diglosia de nuestro país.

A pesar de ello, fundamentados es estos aspectos, hay otros principios que pensamos deben guiar la práctica educativa del centro que queremos precisar.

## a) **PLURAL – INCLUSIVA**

- Debe buscar el conocimiento de las necesidades reales de todo el alumnado y la adecuada respuesta a estas necesidades implicando a toda la comunidad educativa. Para ello la tutoría y la orientación tienen un valor especial y se les dará una relevancia adecuada.
- En la formación de grupos se aceptará y respetará la diversidad. Se procurará la formación de grupos más pequeños o la generación de refuerzos adecuados. En clase se impulsará el trabajo grupal.
- Ofrecer a cada alumno/a el itinerario académico que precise respetando actitudes, capacidades y ritmos diferentes. Para ello se utilizarán los recursos necesarios (desdobles, DC, refuerzos ... ) y metodologías diversas.
- Evaluar a cada alumno y alumna teniendo en cuenta todas sus dimensiones y tratando de llevar sus competencias al nivel más alto posible.
- Asegurar la igualdad de oportunidades respetando culturas y géneros diferentes y procurando superar los límites que puedan suponer. Trabajar la coeducación de manera transversal.

## b) **EUSKALDUN – PLURILIGÜE**

- Ser un centro euskaldun. El euskara además de ser la lengua de aprendizaje también debiera ser la lengua principal de comunicación.
- El profesorado, como modelo que es, tiene una responsabilidad especial en el impulso del euskara.
- Si la presencia del euskara debe contar con especial atención se pondrán todos los medios posibles para lograr un alumnado pluriligüe, dando a las otras lenguas también (Castellano, Inglés, Francés) el espacio que precisen.

- El proyecto lingüístico del centro buscará la coordinación necesaria entre estas lenguas.
- Se debe asegurar su derecho a comunicarse convenientemente a aquellas familias que no sean euskaldunes. Las comunicaciones del centro serán bilingües.

## c) PARTICIPATIVA. QUE CUIDA LA CONVIVENCIA

- Se impulsará una educación basada en los valores democráticos y en los derechos humanos.
- La relación entre padres y madres, alumnado y profesorado se basarán en el respeto y la confianza mutua.
- Se pondrán los medios para la prevención de los conflictos. Si el conflicto llega a producirse se tratará de encauzar de forma pacífica.
- Se procurará la participación de todos los miembros de la comunidad educativa. Todos ellos deben tener la oportunidad de expresar sus puntos de vista y se procurará tener en cuenta estos en la toma de decisiones. Para ello en el documento AJA-ROF se precisarán los cauces de representación (Delegados del alumnado, claustro, consejo escolar, asociación de padres-madres).
- Para lograr una educación participativa se impulsarán metodologías de esta característica.

## d) UNA EDUCACIÓN DE CALIDAD QUE PROCURA EL DESARROLLO INTEGRAL DE LA PERSONA. .

- Una educación que desarrolla todas las emociones, capacidades y competencias. Esto supone un curriculum que las promueva. Se trabajará la educación emocional y, para ello, se promoverá la adecuada preparación del profesorado.
- Se promocionará una formación del profesorado basada en la mejora continua y en la innovación.
- Se impulsarán entre el alumnado la creatividad, el emprendizaje y el voluntariado para conseguir una educación de calidad.
- Se tratará de mantener los recursos adecuados haciendo esfuerzos para el adecuado mantenimiento de instalaciones y materiales.

- Se impulsará el uso de las nuevas tecnologías en condiciones adecuadas para procurar el paso progresivo de los recursos actuales a los digitales.

## e) GENERADORA DE PERSONAS CRÍTICAS Y RESPONSABLES

- El alumno es el protagonista de su aprendizaje. Por ello se fomentará que trabaje e investigue. Se impulsarán metodologías que faciliten la participación activa del alumnado.
- Se fomentará el trabajo cooperativo, dando a cada alumno y alumna responsabilidades específicas.
- Se procurará conseguir alumnos y alumnas críticos y responsables y, para ello, se elegirán delegados para, a través de los mismos, conseguir la participación de todo el alumnado. Se procurará que la mayoría del alumnado tenga alguna responsabilidad.
- Lo que el alumno o la alumna aprende debe tener una funcionalidad para que este aprendizaje sea significativo, los temas que se trabajen deben tener conexión con la realidad y la sociedad.
- Cuidar el medio ambiente es responsabilidad de todos y todas, por ello, de trabajarán hábitos saludables, de ahorro de agua y energía, de reciclaje y reutilización …
- Para desarrollar una educación basada en los derechos humanos se analizarán críticamente las actitudes y acciones que van en contra de los mismos.